

Gaitasunetan oinarritutako prestakuntza espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

Irakaskuntza-ikuspegia: Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila



Konpromisoa: erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Toraxeko Kirurgiako Zerbitzua – Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Prestakuntza Espezializatuko Unitatea. Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



TORAXEKO KIRURGIA

TORAXEKO KIRURGIA Zerbitzuak prestakuntza osoa eskaintzen du. Toraxeko kirurgiak prozedura teknikoen sorta oso zabala hartzen du barne, eta prestakuntza mediko handia eskatzen du. Izan ere, zerbitzuaren garapenean askotariko diziplina ugari lantzen dira: onkologia, aldearen berriazko traumatologia, enfisema artatzeko kirurgia, kirurgia plastikoa, arnas bideko kirurgia, sistema begetatiboko kirurgia funtzionala, kirurgia endokrinoa, esofagoko kirurgia edo espezialitate honek beste medikuntza-espezialitate batzuei ematen dizkien diagnostiko-prozesu anitz.

Jarraian, honako hauek zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Nor gara



Zerbitzuburua

RAFAEL ROJO MARCOS dk.



Egoiliarren Tutorea:

Naia Uribe-Etxebarria Lugariza-Aresti dk.

Zerbitzua 1986an sortu zen. Espezialitatearen Batzorde Nazionalak Toraxeko Kirurgiari buruz diseinatu duen programari jarraituta, prestakuntza osoa eskaintzen du. 1989tik dauka espezialistak trebatzeko akreditazioa. Gaur egun, prestakuntza-plaza bat urte bakoitzean eskaintzen du.

1989tik hona, honako doktore hauek izan dira zerbitzuko zuzendariak: Emili Canalis, Felipe Vara eta Pac Ferrer. Gaur egun arte, **zerbitzua garatzeko gertaera nabarmenak honako hauek izan dira:**

1. Irakaskuntza emateko akreditazioa lortu izana
2. Arnas bideko kirurgia garatzea
3. Kirurgia endoskopiko aurreratua ezarri izana

Haxe da lantaldea:

- Zerbitzuburu bat



- 7 mediku adjuntu
- lanaldi osoko idazkari bat
- lanaldi partzialeko idazkari- bat

Zerbitzuak honako **asistentzia-atal edo -unitate** hauek ditu:

- Ospitaleratuta egoteko ohe-kopurua: 12
- Kanpo-kontsultak bost egunetan egiten dira, eta guztira 10 kontsulta-saio egiten dira
- 5 kirurgia-saio; saio bat egun bakoitzeko ETA ARRATSALDEKO BI LUZAPEN

Urteroko jarduera eskuragarri dago hemen:

[Ospitalea > Urteko Txostena osorik "Arlo klinikoak"](#)

Non gaude

TORAXEKO KIRURGIA Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean dago:

Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

[Ikus ospitalea Google Maps-en](#)

Zerbitzuko Idazkaritza:

Eraikin nagusiko 2.D

Administrazio-idazkaria:

Elvira Pujadas andrea

Harremanetarako telefonoa: +34 94 600 6344

Helbide elektronikoa:

Secretaria.ToracicaCruces@osakidetza.net





Prestakuntza-eskaintza

Gure antolakuntza eta asistentzia-jarduera handiari esker, espezialitateko alderdi nagusi guztietan espezialisten prestakuntza eskaini eta bermatu dezakegu.

- ❖ Honako hauek egiten dira: ospitaleratuta dauden pazienteak berrikusteko eguneroko saioak (bisita aurrekoak), kirurgia-programazio bat, toraxeko tumoreak aztertzeko batzorde bat, irakaskuntza-saioak eta zerbitzua antolatzeko saioak; azken biek ez dute aldizkakotasun zehatza ezarrita.
- ❖ Etengabeko arreta 24 orduz eskaintzen da. Bi langile beti daude aurkitzeko moduan (lehen eta bigarren deietan). Mediku egoiliarrek gutxienez lau eta gehienez sei guardia egiten ditu. Guardiako gelan bertan dago.
- ❖ Eskaintzen ditugun zerbitzuen zerrenda espezialitatearen arabera osatu da, biriken transplanteak izan ezik. Hori dela eta, mediku egoiliarrek hiru hilabeteko errotazioa egiten dute laugarren urtean.
- ❖ Zerbitzuak beste espezialitate batzuetako zerbitzuekin batera lan egiten du. Beste espezialitate horiek medikoak edo kirurgikoak izan daitezke; aholkulari-jarduera handia egiten du.
- ❖ Era berean, une zehatz batzuetan, zerbitzuak kirurgia-elkarlanak egiten ditu. Honako hauek dira elkarlan horretako kideak: kirurgia orokorra, ORL, neurokirurgia, traumatologia eta kirurgia plastikoa.

Gaur egun, prozesu bat hasi da Basurtuko Ospitaleari laguntza-zerbitzuak eskaintzeko aholkularitza gisa. Horretarako, goizean zerbitzuaren staff bat dago ospitale horretan.

Erreferentzia-zerbitzua da Bizkaian eta, batzuetan, Araban ere bai. Zerbitzu egiten dio 1.200 – 1.500 bitarteko biztanleri.

OHIKO TEKNIKA TERAPEUTIKOAK

Toraxeko kirurgia-unitate guztietan, prozedura terapeutiko estandarrek erabilgarri egon behar dute. Toraxeko kirurgia orokorraren esparrukoak dira; zehazki, honako hauek:

- biriketako tumoreen kirurgia onkologikoa
- pneumotoraxeko kirurgia
- enfisema builosoko kirurgia



- biriketako metastasiko kirurgia
- biriketan sortzetik dauden anormaltasunen kirurgia
- biriketako eta pleurako infekzioen ondoriozko patologiak zuzentzeko kirurgia
- diafragmako kirurgia
- toraxeko deformitateak zuzentzeko kirurgia
- toraxeko kirurgia traumatologikoa eta finkapen kostalak
- toraxeko paretako tumoreak tratatzeko kirurgia
- enpiema eta dekortizazioak tratatzeko kirurgia
- tumore mediastinikoen kirurgia
- toraxeko kirurgia neuroendokrinoa (miastenia gravis)
- esofagoko kirurgia
- toraxa berreraikitze kirurgia
- birika-tuberkulosia tratatzeko kirurgia
- mesotelioma tratatzeko kirurgia

Ohiko tekniken artean, nabarmendu behar ditugu eguneroko jardueran eragin handiena dutenak. Kartzinoma bronkogenikoko kasuen kopurua, gaur egun, handituz doa, batez ere, erretzen hasteko adina gero eta txikiagoa delako, kontzientziazio-kanpainak egin arren. Ohikoagoa da emakumeen artean. Egun arte, tratamendu kirurgikoa hautazkoa da, eta, hasierako estadioetan, bizirik irauteko aukera handienak ematen dituena da. Diagnostikoan egin diren aurrerapenek, kimioterapiko berriek eta, duda barik, etorkizunean erabilgarri egongo direnek indikazio kirurgikoak handituko dituzte denboraldi zabal batean; horrez gain, estadio aurreratuetara hedatutako dute kirurgia. Gaur egun ere, biriketako metastasia duten pazienteen kopuru gero eta handiagoak jotzen du kirurgiara, metastasiaren jatorria ia edozein izanda ere. Gaur egun, biriketako diana-metastasiako kirurgiak eragiten ditu tumoreen erresekzioko kasuen %25, toraxeko ohiko kirurgia eskaintzen duen edozein zerbitzutan. Askotan, kirurgia orokorreko zerbitzuarekin eta neurokirurgia-zerbitzuarekin batera jarduten du, metastasia giblean edo burmuinean dagoenean.

Toraxeko kirurgian etorkizun handia duen beste arlo bat neumotorax primarioko kirurgian dugu, ohiko kirurgiaren edo kirurgia torakoskopikoaren bidez. Eta, bereziki garrantzitsua da, baldin eta egonaldi laburrak behar izaten dituzten pazienteak gazteak edo beste tratamendu batzuen paziente subsidiarioak badira. Ia ez dago konplikazio-tasarik.



Toraxean jaiotzetik dauden deformazioak (*pectus carinatum* eta *excavatum*) tratatzeko kirurgia hedadura-fase batean sartzean dago, teknika berriak agertu direnetik (Nuss teknika, adibidez). Horrez gain, itxura-anormaltasun horiei gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie, klinikoki interesik ez izan arren.

Teknika terapeutikoen multzo bat, or har, lantalde guztiek ezin dute erabili, baliabide teknikoak falta direlako, administrazioen lehentasunezko aukerak bestelakoak direlako, edo trebakuntza teknikoa falta zaielako. Edonola ere, teknika horiek garrantzitsuak dira, eta, adibidez, irakaskuntza-unitateak edukitzeko aukera ematen dute.

- kirurgia torakoskopiko terapeutikoa
- kirurgia trakebronkiala
- biriken bolumena txikiagotzeko kirurgia
- biriketako transplantea
- berariazko sarbideetako kirurgia
- VATS

Gehiago jakin nahi izanez gero, hemen dago eskuragarri gure zerbitzu-zerrenda:

[Ospitalea > Zerbitzuen zorroa > Toraxeko Kirurgia.](#)

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusirik irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarriko prestakuntza bateratua osatzeko. Ikastaro horietako gehienak ezinbestekoak dira azken titulua lortzeko.

Ospitaleak **Saio Orokorrak** antolatzen ditu hilero, asteazken batean edo bitan, 8:30ean, Areto Nagusian. Saio horiek garrantzi handikoak dira prestakuntza osoa lortze aldera, espezialitatea zeinahi den. Izan ere, interes bereziko kasu klinikoak buruz ikasteaz gain, ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamenduaren eta horien arteko loturen berri jasotzen da, baita, batzordeek duten jardueraren garrantzitsuarena ere.



Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

Plan orokorra eta egoiliarren prestakuntza-etapak. Asistentzia-jardueren deskribapena

Espezialitatearen programak bost urte irauten du, eta prestakuntza teorikoa eta praktikoa lortu behar dira. Egoiliar gisako aldia amaituta, trebatutako espezialistari aukera eman behar dio autonomoki jarduteko.

1. **Prestakuntza teorikoa.** Toraxeko Kirurgia Espezialitatearen Batzorde Nazionalak egin duen prestakuntza-planean garatu dira edukiak. Zerbitzuko saio klinikoek, kasu klinikoek gaineko aurkezpenek eta espezialitateari buruzko komunikazioek osatuko dute prestakuntza; azken horiek tokiko edo nazionalen sozietateen biltzarretan egin daitezke. Horrez gain, garrantzi berezia dute aldizkari zientifikoetako argitalpenek eta saio bibliografikoek aurkezpenak; gaiak kasu klinikoak zein espezialitatearen gainekoak izan daitezke. Espezialitateko eduki teorikoak zeintzuk diren, mediku egoiliarrek prestakuntza teoriko generikoa eskuratuko du. Prestakuntza hori Gurutzetako ospitaleko mediku guztiei ematen zaie. Zentroko Irakaskuntza Batzordeak egin behar du prestakuntza generiko hori.
2. **Prestakuntza praktikoa.** Tutoreak edo tutoreek berrikusiko dute, zerbitzuko mediku espezialista batzuekin batera. Mediku egoiliarren pixkanaka emango zaio erantzukizun handiagoa. Beste zerbitzu batzuetako errotazioak kontuan hartzen dira. Gainera, oso garrantzitsuak dira egoiliar gisako prestakuntza-aldiaren herena osatzen baitute, gutxi gorabehera.



Honako hauek izango dira mediku egoiliarren errotazio-aldiak:

- **Lehenengo urtea (egoiliar gisa):**

2 hilabete: toraxeko kirurgian; 2 hilabete: larrialdi orokorretan; 8 hilabete: kirurgia orokorrean eta digestio-aparatuko kirurgian.

- **Bigarren urtea (egoiliar gisa):**

5 hilabete: toraxeko kirurgian; 5 hilabete: neumatologian (2 hilabete: neumologia-ospitalizazioko solairuan; 3 hilabete: bronkoskopia-unitatean); hilabetea: ORL unitatean (aukerakoa).

- **Hirugarren urtea (egoiliar gisa):**

7 hilabete: toraxeko kirurgian; 2 hilabete: bizkortze-unitatean; 3 hilabete: kirurgia kardiobaskularrean

- **Laugarren urtea (egoiliar gisa):**

12 hilabete: toraxeko kirurgian. Denboraldi horretan, komeni da hiru hilabeterainoko errotazio bat nazioko edo atzerriko beste zentro batean egitea, teknika edo trebetasun berritzaile bat ikasteko. Biriken transplanteen gainekoek lehentasuna daukate.

- **Bosgarren urtea (egoiliar gisa):**

12 hilabete: toraxeko kirurgian.

Ikasten ari den mediku egoiliarrak behar bezalako prestakuntza jaso behar du lehenengo urtean kirurgia orokorreko guardietan egin beharrekoa egiteko gai izateko; gero, gainerako urteetan, toraxeko kirurgiako guardiak egingo ditu, lan-kontratua duen langile batekin batera. Egoera berezietan, baliteke guardia lokalizatuak egin behar izatea, zerbitzuan beharrezkoa baldin bada, edo zerbitziburuek eta tutoreek eskatzen badute.



Ikerkuntza

Ospitaleak [BioCruces](#) ikerkuntza-Institutuaren ikerketa-laguntza dauka.

Zerbitzuak honako ikerketa-lerro hauek zuzentzen ditu, edo haietan laguntzen du:

- a) “HISTOCELL” proiekturako laginak hartzeko programa. Proiektua terapia zelularri buruzkoa da, biriketako fibrosi idiopatikoa (IPF) tratatzeko.
- b) Banku biologikoari laginak emateko programa. Lagin horiek geroagoko ikerketa-proiektuetan erabiliko dira.

Saio klinikoak egiten ditu, farmazia-industriaren lankidetzarekin batera.

Egoiliarra poliki-poliki ikerketa-lanetan parte hartzen hasten da. Egoiliar gisan bi urte egin eta gero, doktore-tesia egiten has daiteke.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagoa eskuragarri dago hemen:

[MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da; hortaz, ikasketak hobetzeko asmoz, indarrak eta ahuleziak hauteman ondoren, hobekuntza-planak ezartzen ditu. **“Prestakuntzaren ebaluazioa”** deitutako ebaluazio-mota horretarako, gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak. Segidan aipatuko diren metodo batzuei esker, informazio zehatza lor dezakegu iturri askotatik eta hainbat ikuspegitatik (gainbegiraleen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio hori erabilia, **Urteko Ebaluazioaren Batzordeak**, kide guztiak ados jarrita, txosten bat egiten du. Txosten horretan jasotzen ditu egoiliarren indarguneak eta, hala dagokionean, hobetzeko arloak. **“Egoiliarren Urteko Espedientea”** osatzen dute gaitasunetan oinarritutako txosten horrek eta derrigorrean egin beharreko ikastaroen ziurtagiriek. Tutorea arduratzen da prestakuntza-prozesu guztia kudeatzeaz eta egoiliarri Urteko Espedientea emateaz.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Toraxeko Kirurgia Zerbitzuko barne-mediku egoiliarrek lortu beharreko gaitasunak bat datoz Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak definitu dituen XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-arloekin. Hona hemen arlook:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientearen zainketa eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun-sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (osasunaren sustatzailea eta baliabideen kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentziako, irakaskuntzako eta ikerketako gaitasunak bildu dira hemen: [Programa oficial de la especialidad de Cirugía Torácica.](#)



Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio-sistema orokorra¹.

Irakaskuntza Batzordeak ([Irakaskuntzako Batzordea](#)) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak zuzentzen dute ebaluazio-sistema. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen ari den “**Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza**” izeneko proiektuaren barnean dago. Honako ebaluazio-metodo (**ebaluazio-metodoak**) hauek erabiltzen dira:

- a. Errotazio bakoitzeko gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen berezko eredua)
- b. Aldian behingo elkarrizketak tutorearekin (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da). Honako bi alderdi hauek biltzen ditu: lortutako gaitasunen gaineko hausnarketa, batetik, eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin lotutako beste jardueren kuantifikazioa, bestetik.
- e. Gaitasunetan oinarritutako tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa, jasotako prestakuntzaren gainekoa.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen die Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei.
2. Bi urtean behin, otsail eta martxo artean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetasun-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hori duela 20 urte egiten hasi zen.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrri M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J eta González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica. Madrid 2013. FEM 2013; 16 (2. gehig.): S62. Erabilgarri dago hemen: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



TORAXEKO KIRURGIA ©